

**2024/57 EBAZPENA, Funtzio Publikoko sailburuordearena, enplegua finkatzeko hautaketa-prozesuetako Administrazio Orokorreko lan-poltsak handitzeko irizpideak ezartzen dituen.****RESOLUCIÓN 57/2024, del Viceconsejero de Función Pública, por la que se establecen los criterios de la ampliación de las bolsas de trabajo de Administración General de los procesos selectivos excepcionales de consolidación de empleo.**

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da.

La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

4. artikulua honako hau xedatzen du: "Lan-poltsetan eskaintza jakin baten edo batzuen baldintzak betetzen dituen hautagairik ez badago, lan-poltsak kudeatzeko eskumena duen organoak izangaia hautatu ahal izango du prozedura hauen bidez: a) Administrazio honetako lan-poltsak osatzen dituzten langileen artean kudeaketa berezia egitea; b) Administrazio Orokorreko beste sektore batzuetako lan-poltsetara joatea; c) Atarian lan-eskaintzak egitea; d) Deialdi espezifikoak egiteko eskatzea; e) Beste administrazio publiko batzuetako lan-poltsetara joatea; f) Lanbidera joatea; g) Enplegu publikoko eskaintzak deitzea.

Su artículo 4 determina que: "en el supuesto de inexistencia de aspirantes en las bolsas de trabajo existentes que cumplan los requisitos de una determinada o determinadas ofertas, el órgano competente en la gestión de bolsas podrá seleccionar a la persona candidata a través de los siguientes procedimientos: a) Realizar gestión excepcional entre el personal que integra las bolsas de trabajo de esta Administración; b) Acudir a bolsas de otros sectores de la Administración General; c) Realizar ofertas de trabajo en el Portal; d) Solicitar la realización de convocatorias específicas; e) Acudir a bolsas de trabajo de otras Administraciones Públicas; f) Acudir a Lanbide; g) Convocar ofertas de empleo público.

Baina lan-poltsak zabaltzeko edozein aukera baliatzen dela ere, efikazia, eraginkortasun eta efizientzia administratiboaren printzipioak bete beharko dira, eta honako hauek kontuan hartuko dira: lanpostua betetzeko premia, lanpostuaren profil zehatza eta deialdi zehatza edo enplegu publikoaren eskaintza egiteko gaitasun materialak."

La elección de la vía de ampliación estará supeditada a los principios de eficacia, efectividad y eficiencia administrativa: a la urgencia en la cobertura de la prestación de servicios, al particular perfil de la misma y a las posibilidades materiales de realizar una convocatoria específica u oferta de empleo público."

Gaur egun, enplegua finkatzeko salbuespenezko zenbait prozesu amaitzen ari dira, eta, aldi baterako lan-poltsa gehienek ez dutenez nahikoa kide administrazio honetako langile-eskaera guztiei erantzuteko, prozesu horiek handitzeko beharra aurrekusten da, hautaketa-prozesuak ebatzi ahal, bai eta aplikazio komuneko irizpideak ezartzeko beharra ere. Enplegu publikoko eskaintzen deialdiak araudian jasotako zabaltze-bideetako bat dira.

En la actualidad, están finalizando varios procesos excepcionales de consolidación de empleo y, ante la falta de personal disponible en las bolsas de trabajo para satisfacer todas las demandas de personal de esta administración, se prevé la necesidad de su ampliación, según vayan resolviéndose los procesos selectivos, y de establecer los criterios de común aplicación. Las convocatorias de ofertas de empleo público son una de las vías de ampliación recogidas en la normativa.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu

Mediante Orden de 18 de mayo de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos especiales de consolidación de empleo y los procesos excepcionales de consolidación



bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautzeko oinarri orokorrak. Era berean, kidego eta eskala batzuen deialdiak argitaratu dira 2022ko maiatzaren 18ko, irailaren 8ko eta azaroaren 18ko aginduen bidez.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez, enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboen Hitzarmeneko langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartzen dira. Era berean, lan-kontratu langileentzat gordetako hainbat lanposturen deialdiak argitaratu dira, 2022ko irailaren 8ko, azaroaren 17ko eta abenduaren 19ko aginduen bidez.

Horregatik, ebazpen honen bidez irizpideak ezartzen dira kidego eta eskaletako lan-poltsak zabaltzeko, bai eta aparteko finkatze-prozesuetan deitu diren lanpostuen kategoriei dagokienez ere. Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpen bidez zabalduko da, eta ebazpen hori hautagaiaren atarian argitaratuko da.

Langile horiek lanerako prest ez egoeran sartuko dira, eta borondatez aldatu ahal izango dute prest egoerara, indarrean dagoen araudiaren arabera (AGINDUA, 2021eko urtarrilaren 7koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzekoa), lan-poltsan sartzen diren egun berean.

Lan-poltsak osatzen dituzten langileek sms bat jasoko dute esteka batekin, eta bertan jakinaraziko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lan-poltsak kide direla, zer arautegik arautzen dituzten eta lan-eskaintzak jasotzen hasteko zer izapide egin behar dituzten.

Lan-kontratu lanpostuen kidego, eskala eta kategoria bakoitzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuak amaitzean, dagozkion lan-poltsak berrantolatuko dira, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren ebazpen bidez zehazten diren irizpideen arabera, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen

de empleo en los cuerpos y escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos. Asimismo, se han publicado las convocatorias de varios Cuerpos y Escalas mediante Órdenes de 18 de mayo, 8 de septiembre y 18 de noviembre de 2022.

Mediante Orden de 8 de septiembre de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos especiales de consolidación de empleo y los procesos excepcionales de consolidación de empleo en puestos reservados a personal laboral del Convenio de Colectivos laborales al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo, se han publicado las convocatorias de varios puestos reservados a personal laboral mediante Órdenes de 8 de septiembre, de 17 de noviembre y 19 de diciembre de 2022.

Por ello, mediante la presente Resolución se establecen los criterios para ampliar las bolsas de trabajo de los cuerpos y escalas, así como respecto de las categorías de los puestos laborales que se han convocado en los procesos excepcionales de consolidación. La ampliación se realizará mediante Resolución del Viceconsejero de Función Pública, que será publicada en el Portal del candidato.

Este personal se integrará en situación de no disponible, y podrán cambiar voluntariamente, de acuerdo a la normativa vigente (Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos) su situación a disponible el mismo día de su integración.

El personal que integre las bolsas recibirá un sms con un enlace en el que se le informará que forma parte de las bolsas de la administración general de la comunidad autónoma y sus organismos autónomos, de la normativa que las regula, y los trámites para empezar a recibir ofertas de trabajo.

A la finalización de los procesos selectivos excepcionales de cada cuerpo y escala y categoría de los puestos laborales, se procederá a la reordenación de las bolsas de trabajo correspondientes, que se llevará a cabo conforme a los criterios que se determinen mediante Resolución de la Viceconsejería de Función Pública, previa negociación con la representación del personal.

De acuerdo con el artículo 17 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura



urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikulua araberaz, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren eta organo eskudunek nahitaezko txostenak egin ondoren, honako hau

orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, y previa negociación con la representación del personal y emitidos los informes preceptivos por parte de los órganos competentes

**EBAZTEN DUT:****RESUELVO:**

Lehenengoa.- Eranskinean adierazten diren irizpideak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean eta Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako kontsolidazio-prozesuetan deitutako kidego eta eskalen eta lanpostu-kategorien lan-poltsak zabaltzeko.

Primero.- Establecer los criterios para ampliar las bolsas de trabajo de los cuerpos y escalas y categorías de puestos laborales convocados en los procesos de consolidación previstos en la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, que se indican en el Anexo.

Bigarrena.- Lan-poltsak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Segundo.- Las bolsas de trabajo surtirán efectos desde el día siguiente de su publicación.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Lan-poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

Vitoria-Gasteiz,

José María ARMENTIA MACAZAGA  
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA / VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA

## ERANSKINA

## ANEXO

### LAN-POLTSAK HANDITZEKO IRIZPIDEAK

1.- Lanpostu-eskala edo -kategoria batean sartzeko enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako azken kalifikazioen behin betiko zerrendako hizkuntza-eskakizunik gabeko zerrendan dauden langileak eskala edo lanpostu-kategoria horri dagokion lan-poltsan sartuko dira, betiere eskala edo lanpostu-kategoria horretako lan-poltsan ez badaude.

2.- Langile horiek lan-poltsa bakoitzaren amaieran sartuko dira, 0 puntuarekin eta hautaketa-prozesu horretako oposizio-faseko azken puntuazioaren ondoriozko hurrenkeran, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta.

3.- Berdinketa gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 a) artikuluan jasotako klausula aplikatu behar da. Hala, berdinketa emakumeen alde ebatziko da deialdiari dagokion kidegoan edo eskalan edo lanpostuaren kategorian emakumeen % 40 baino gutxiago dagoenean, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituzenean – nolahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik –; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea hizkuntza-eskakizuna izango da, hizkuntza-eskakizun handienetik txikienera ordenatuta. Berdinketak bere horretan badirau, *Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko irailaren 29ko EBAZPENEAN argitaratutako letra izango da berdinketa hausteko hurrengo irizpidea. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2024-2025 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, bai eta ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere. Zozketaren emaitza "P" letra da. Irizpide hori alfabeto-hurrenkeran aplikatuko da lehenengo abizenarekin, bigarren abizenarekin berdinketak jarraitzen badu, eta, azkenik, izenarekin.*

4. – Jardunean ari diren langile integratuek "prest ez" egoera izango dute, harik eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, hautagaiaren atariaren bidez, beren borondatez aldatzen duten arte.

### CRITERIOS DE AMPLIACIÓN DE BOLSAS DE TRABAJO

1.- El personal que forme parte del listado sin perfil lingüístico de la relación definitiva de calificaciones finales de los procesos excepcionales de consolidación de empleo de acceso a una escala o categoría de puesto laboral será integrado en la bolsa de trabajo correspondiente a dicha escala o categoría de puesto laboral, siempre que no forme parte de la bolsa de esa escala o categoría de puesto laboral.

2.- Este personal se integra al final de cada bolsa, con puntuación 0 y en el orden resultante de la puntuación final de la fase de valoración de méritos de dicho proceso selectivo, ordenados de mayor puntuación a menor.

3.- En caso de empate, debe aplicarse la cláusula contenida en el artículo 21.1 a) del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en el cuerpo o escala o categoría de puesto laboral correspondiente a la convocatoria, salvo que concurren en la otra persona candidata motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo. Como siguiente criterio de desempate se usará el perfil lingüístico, ordenado de mayor a menor perfil. De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en la *RESOLUCIÓN de 29 de septiembre de 2023, de la Directora de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatas y candidatos a sustituciones durante el curso escolar 2024-2025, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar. El resultado del sorteo es la letra "P". Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el primer apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre.*

4.- El personal integrado que esté en activo tendrá la situación de "no disponible" hasta que voluntariamente la modifique, de conformidad con la normativa vigente, a través del Portal de candidato.

5.- Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpena eta handitutako lan-poltsen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira lan-poltsan hautagaiak.

<https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedeeep/es/>

<https://www.euskadi.eus/administrazio-orokorraren-lan-poltsak/web01-sedeeep/eu/>

5.- La integración en la bolsa se realizará al día siguiente de la publicación de la Resolución del Viceconsejero de Función Pública y el listado de las bolsas de trabajo ampliadas.

<https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedeeep/es/>

<https://www.euskadi.eus/administrazio-orokorraren-lan-poltsak/web01-sedeeep/eu/>